

BIHOTZ BEGIEKIN

Begira sorlekuari
Zertan da neure herria.
Zenbat lagun bizi ote ziren
Mundu honekin bat eginda?

Harri landuaren azpian
Zer zegoen garai batean?
Urek ere ezin zehatz esan
Erreka nondik nora doan.

Santutxoaren aurreko ezkia ere
Betirako behar nuen.
Motozerra entzute hutsak
Mina ematen dit barruan.

Murgixako kaltzadan gora
Hura zerura bidea.
Porlanezkoa da gaur egun
Berdindu dute, galdu da.

Oi aurrerabidean
Hainbat gauza bazterrera bota.
Kaltzadak, zuhaitzak, etxeak,
Neure bidean zeudenak.

Ni ote naiz lur pusketan hau
Bihotz begiekin dakusana?
Ni nonbaitekoa naizela eta
Pozik dabilen ergela?

Ongi izatearen gurrpila
Gelditu nahi duen nagia?
Urrezko kaiola ederrean
Bizi nahi duen adixkidea?

Oi aurrerabidean...

*Seguru asko ezagutuko duzue hemen jarri
dizuegun kanta hau. Zer esaten du, zuen ustez,
Ruperrek abesti honekin? Proposatzen dizuegu
zuen artean horri buruz hitz egitea, nahi
baduzue ingurukoei ere galdetu.*

*Erreportajeari amaiera emateko, kanta eder
hau zuek abestea proposatzen dizuegu.
Animatuko zarete, ezta?*